



ISD 2021 - VII Congreso Internacional del Interaccionismo Socio-discursivo

Uzt. 05 - Uzt. 07 2021

Kod. L02-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Workshop

Data

Uzt. 05 - Uzt. 07 2021

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa


Hizkuntzak

Gaztelera Frantsesa

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Kongresua aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Kongresu honetan hizkuntzaren interakzionismo sozio-diskurtsiboarekin lotutako ikerketak partekatuko ditugu gure ezagutza eguneratzeko, eta garrantzi berezia emango zaio irakaskuntza eleaniztunari eta haren barnean hizkuntza gutxituak aintzat hartzeko moduari.

Hau da Euskal Herrian (eta espainiar eta frantses estatuetan) egiten den lehenengo Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) topaketa. Ordea, Ginebrako Unibertsitateko gure kolaboratzaileen ekarpenei esker, Euskal Herrian ISDren eragina oso nabarmena izan da hizkuntzen eta haien trataeraren inguruko gaiei dagokienez, bereziki, hizkuntzen ikas eta irakas-prozesuen alorrean. Hainbat erakunde eta dokumentutan geratu da islatuta korrante horren eragina, dela ume zein helduen hizkuntzen irakaskuntzan (euskara nahiz beste hizkuntzena), dela hizkuntza-irakasleen prestakuntzaren arloan ere.

Ziur gaude nazioarteko ikertzaileen presentziak komunitate zientifikoari, oro har, eta euskal komunitateari, bereziki, aukera emango diola ikuspegi interakzionista eta sozio-diskurtsiboa zabaltzeko, bai eta hizkuntza-aniztasunari, hizkuntzen funtzionamenduari eta haien didaktikari buruz dugun ezagutza eta ulermena zabaltzeko ere, besteak beste, hizkuntzaren azterketa eta hizkuntzen irakaskuntza gero eta modu zientifiko eta eraginkorragoan landu dadin.

Mintzairaren jarduera egoera eleaniztunetan eta hizkuntza gutxituetan hobeto ezagutzea gure interesgune nagusia izateak ISDaren ikuspegia zabaltzera garamatza eta beste hurbilbide batzuei lekua egitera, adibidez, tradizionalki soziolinguistikarekin lotutakoak, kontuan hartu nahi baititugu hizkuntza gutxituetako hiztun berrien azterketak zein hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuei buruzko ikerketak.

Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntza gutxituei dagokienez, UNESCOren gomendio eta ekimenak ditugu batetik; hizkuntza aniztasunaren eta hezkuntza elaniztunaren (2014) alde egiten dute, hizkuntza indigenen biziberritzearekin batera (IYIL 2019). Bestetik, Europako Kontseiluaren proposamenak (2019) ere baditugu, herritar guztien eleaniztasuna sustatzeko beharra nabarmentzen dutenak.

Gure aburuz, hizkuntza gutxituak integratzen dituen irakaskuntza eleaniztuna da hizkuntza-aniztasuna babestu eta garapen iraunkor globala bermatzeko era bakarra.

Helburuak

Euskal gizartean eragin handia duten hezkuntza eleaniztari buruzko azterlanak euskal komunitateari eta nazioarteari ezagutaraztea.

Interakzionismo soziodiskurtsibotik hausnarketa teorikoa eta metodologikoa sustatzea eta zabaltzea, euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean zentratutako hezkuntza eleaztunaren azterketari eta berrikuntzari ekiteko.

Europako zein Amerikako testuinguru desberdinetatik datozen hizkuntzen didaktikari buruzko azterlanak ezagutzea eta trukitzea.

Ikerketa sustatzea eta ikertzaile gazteak erakartzea, hizkuntza gutxitudun hezkuntza eleaniztunaren ikerketan espezializatu daitezten.

Kongresuaren gaiarekiko interesa daukaten eta jardunean dauden irakasleei prestakuntza osagarria emateko aukera eskaintzea.

BATZORDE ANTOLATZAILEA

- Ines M^a Garcia Azkoaga, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- Leire Diaz de Gereñu, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- Ibon Manterola, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- Jean-Paul Bronckart, Ginebrako Unibertsitatea
- Itziar Idiazabal, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- Eulália Vera Lúcia Fraga Leurquin, GELA/CNPq, Universidade Federal do Ceará (UFC), Brasil

ZIRKULARRAK

- [Lehen zirkularra](#)
- [Bigarren zirkularra](#)
- [Hirugarren zirkularra](#)

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Zuzendaritza




Ines M. Garcia Azkoaga

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Filologian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle titularra. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailean egiten dut lan eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika sailean ere aritu izan naiz. Nire ikerketa arloak hizkuntza gutxitua aintzat hartzen duen hezkuntza eleaniztuna du ikusmiran, bereziki hizkuntzen alderdi diskurtsibo eta testualen garapena oinarri hartuta. Horiek dira, hain zuzen, nire argitalpenetan jorratzen diren gai nagusiak. Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza Saileko lehendakaria izan naiz; egun, UPV/EHUko Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedraren arduraduna naiz.

Irakasleak



Ermelinda Barricelli

Coordenadora do Curso de Pedagogia - Universidade São Francisco (USF)


São Francisco Unibertsitateko Pedagogia graduondoko ikastaroaren koordinatzailea eta irakaslea. Hezkuntzan Hasteko Programaren (PIBID) koordinatzaile instituzionala da, eta CAPESek finantzatzen du, erakunde berean. Literatura eta Pedagogian lizentziatua da eta Hizkuntzalaritza Aplikatua eta Hizkuntzaren Ikasketak masterra eta doktoregoa ditu PUC-SPren Hizkuntza eta Hezkuntza lerroan, Anna Rachel Machadoren zuzendaritzapean. Gainera, doktorego-praktikak egin zituen Parisko Arte eta Lanbide Kontserbatorio Nazionalan (CNAM), Anna Rachel Machadoren zuzendaritzapean eta Yves Cloten gainbegiradapean. UNICAMPeke Hezkuntza Fakultatean doktorego ondokoa egin zuen eta ALTER-AGE-USP ikerketa taldeko kidea da. Bere ikerketa, bereziki, haur-hezkuntzako irakaskuntzan oinarritzen da.



Jean Paul Bronckart

Universidad de Ginebra

Genevako Unibertsitateko ohorezko irakaslea. Jean Piageten kolaboratzailea izan zen 1969tik 1975era, eta Hizkuntzaren didaktikan katedraduna izan zen 1976tik 2012ra Psikologia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Hizkuntzaren teorietan, testuaren/diskurtsoaren azterketan, hizkuntzaren didaktikan eta hizkuntzak garapen psikologikoan duen zereginen oinarritzen da bere ikerketa eta irakaskuntza. Interakzionismo Sozio-diskurtsiboaren Sarearen sortzailea da, eta 500 argitalpen baino gehiago ditu, horien artean *Théories du langage* (1977/bertsio berria, 2019), *Le fonctionnement des discours* (1985), *Activité langagière, textes et discours* (1997), *Desarrollo del lenguaje y didáctica de las lenguas* (2007), *Le projet de Ferdinand de Saussure* (avec E. Bulea & C. Bota, 2010), *Bakhtine démasqué* (avec C. Bota, 2011), *Pourquoi et comment devenir didacticien ?* (2016) et *As unidades semióticas em ação* (avec E. Bulea Bronckart, 2017).



Luzia Bueno

Universidade São Francisco (USF)

Universidade São Franciscoko Stricto Sensu Hezkuntza Graduondoko Programako irakaslea. Hezkuntza, hizkuntza eta prozesu interaktiboen arloan lan egiten du, alfabetatzeari, testu-generoen irakaskuntzari eta irakasleen prestakuntzari buruzko ikerketak garatuz eta zuzenduz. Arte eta Gizarte Zientzietan lizentziaduna da, Unicampek Aplikatutako Hizkuntzalaritzan masterra du (Angela Kleimanen zuzendaritzapean), PUC-SPk Aplikatutako Hizkuntzalaritzan doktoretza du (Anna Rachel Machadoren zuzendaritzapean), Genevako Unibertsitatean doktoretza pasantia batekin, Jean-Paul Bronckartek gainbegiratua. CNPq-2 bekaduna da, ALTER-LEGE-CNPq ikerketa-taldeko burua eta ALTER-AGE-CNPq taldeko zuzendariordea.



Ecaterina Bulea-Bronckart

Universidad de Ginebra

Genevako Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Didaktika Frantseseko irakaslea, hizkuntzen irakaskuntzako ikerketa-taldea zuzentzen duena eta Hezkuntza Zientzietako doktorego-ikasketak koordinatzen dituena. Bere lanak, nagusiki, hiru arlo hartzen ditu: lehen hizkuntzaren didaktika, gramatikaren irakaskuntza eta gramatika eta testuen arteko loturetan arreta jarritz; hizkuntzaren teoria orokorrak, bereziki Saussureren lana eta hizkuntzaren ikuspegi dinamikoak; hizkuntzak garapen psikologikoaren prozesuan duen papera. Bere ikerketa batzuk unibertsitate frankofonoekin lankidetzan estuen esparruan garatzen dira, baina baita Espainian, Portugalen, Brasilen eta Argentinan ere, nazioarteko sareen barruan, bereziki interakzionismo sozio-diskurtsiboko sarea (IDE) eta Frantsesaren Irakaskuntza Ikertzeko Elkarte (AIRDF).



Joaquim Dolz Mestre

FPSE Université de Genève

Hizkuntzaren didaktikako eta irakasleen prestakuntzako irakaslea Genevako Unibertsitatean. 1980tik hizkuntzaren garapena eta hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza ikertzen ditu interakzionismo soziodiskurtsiboaren ikuspegitik. Ikerketa horien artean ezagunenak dira ahozko eta idatzizko ekoizpenaren irakaskuntzari buruzko lanak, testu-generoak, sekuentzia didaktikoak, ikasteko zailtasunak eta irakaskuntza-jardueraren analisia. Grafe eta FORENDIF ikerketa-taldeetako kide da, eta, gaur egun, frantseseko didaktikako irakasleen prestakuntzari buruzko ikerketa berria zuzentzen du.



Fred Genesee

McGill University

Montrealeko McGill Unibertsitateko Psikologia Saileko irakasle emerittoa da. Bere intereseko gaiak dira elebidunengan gertatzen diren prozesuak: hizkuntzen ikaskuntzarekin lotutakoak, hizkuntzen gaineko irudikapenak, hizkuntzen erabilerak. Halaber, bigarren hizkuntza baten ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioaren prozesuak interesatzen zaizkio. Ikerketa zabala egin du programa elebidun eta inmertsiozkoen gainean, hizkuntza nagusi zein gutxiagotuen testuinguruetan, eta arreta jarri du programa horietan baztertze-arriskuan dauden ikasleen garapen akademikoan ere. Horretaz gain, eskola aurreko ikasle elebidun neurotipikoen garapen linguistikoa aztertu du. Artikulu ugari argitaratu du aldizkari zientifikoetan eta elebitasunari buruzko 16 libururen egile da.



Itziar Idiazabal Gorrotxategi

UPV/EHU

Euskal Filologian katedraduna (1992), Hizkuntzalaritza eta UPV/EHUko Euskal Ikasketak saileko Ohorezko Kolaboratzailea da. Genebako Unibertsitatean doktorea (1983) psikolinguistika alorrean. ELEBILAB ikertaldeko kide da (<https://www.ehu.eus/eu/web/elebilab>) eta bertan hainbat ikerketa zuzendu ditu haur elebidunen hizkuntza jabekuntzaz, euskararen azterketa diskurtsiboaz, eta irakaskuntza elebidun eta eleaniztunaren inguruan, beti ere hizkuntza gutxitu bat ardatz izanik (ikus Garcia-Azkoaga & Idiazabal, 2015). Alor horietan 15 doktorego tesi zuzendu ditu. UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren sortzailea eta kidea da <https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra>. Bertan, Hizkuntza aniztasuna eta garapen iraunkorrari buruz argitaratu duen azken lana: www.labor.eus/IdiazabalPerezCaurel. Euskaltzaindiako kide urgazlea da.



Eliane Lousada

Faculdade de Filosofia, Letras e Ciências Humanas - Universidade de São Paulo (USP)

Eliane Lousadak Hizkuntzalaritza Aplikatua eta Hizkuntzaren Ikasketak doktoregoa du PUC-SPn. Irakaslea da Letren Fakultateko Hizkuntza Modernoen Sailean eta São Pauloko Unibertsitateko (USP) Atzerriko Hizkuntzak eta Itzulpengintza graduondoko programan. Irakaslea eta ikerketa-zuzendaria izan da Kanadako Guelph Unibertsitatean, frantsesa bigarren hizkuntza/atzerriko hizkuntza gisa didaktikaren arloan. ALTER-CNPq eta ALTER-AGE-CNPq ikerketa-taldeetako burua da, eta Frantseseko USPko Filosofia, Letra eta Giza Zientzien Fakultateko Alfabetatze Akademikoko Laborategiko koordinatzailea. Ikertzailea da testu-generoen irakaskuntzan eta ikaskuntzan, hizkuntzaren irakaskuntzarako, alfabetatze akademikorako eta irakasleen prestakuntzarako eta hobekuntzarako material didaktikoak prestatzen eta aztertzen, interakzionismo soziodiskurtsiboan eta lan-zientzietako batzuetan oinarrituta.

Matrikula prezioak

MODALITATEA: AURREZ AURRE

2021-06-12 ARTE

Arrunta	100,00 EUR
Ikasleak, langabetuak	50,00 EUR
Latinoamerikar bekadunak	50,00 EUR
Latinoamerikar bekadunak - Ikasleak, langabetuak	25,00 EUR
Hizlari gonbidatuak	0 EUR

MODALITATEA: ONLINE ZUZENEAN - ZOOM

2021-06-12 ARTE

Arrunta	100,00 EUR
Ikasleak, langabetuak	50,00 EUR
Latinoamerikar bekadunak	50,00 EUR
Latinoamerikar bekadunak - Ikasleak, langabetuak	25,00 EUR
Hizlari gonbidatuak	0 EUR

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza 2, 20018 - Donostia

Gipuzkoa